

A clownfish with a yellow body and blue stripes is swimming in a sea anemone. The anemone has many long, white tentacles. The background is dark blue.

IRRATI-IDAZKERA HOBETZEN

Ikasleek egindako lanetatik
hartutako adibideak dira hauek

IRRATI-MEZUA

Entzumenari zuzenduta

Ezin atzera egin entzuketan

Hizkuntz zuzena, naturala, zehatza eta

ARGIA

Entzumenaz bereizi ezin dena, hitzez azaldu

(...) Gora
Euzcadi
Chistulari
saioaren
idazketak...

(...) Izan ere,
irratsaioaren
izenburua modu
bitxiaz idatzita dago,
gaztelaniazko c eta
ch erabiltzen baititu...

(...) Irratsaioaren
izenburua
gaztelaniazko grafiaz
idatzita dago eta...

Esaldiaren antolaketa (argiago azaldu nahian)

Baieztapen hau ETA-ri zuzendu diote talde terroristak Getxoko epaitegian Ertzainaren aurka egindako atentatu saiakerari buruz jendeak zer uste duen adierazteko.

ETA-ri zuzendu diote baieztapena. Horrekin adierazi nahi izan dute jendeak zer uste duen talde terroristak Getxoko epaitegian Ertzainaren aurka egindako atentatu saiakerari buruz.

NAHASIA argitzen saiatu

Azken inkesta honetan aipagarria da pertsona batek **bataz beste** ikusten dituen hiru ordu eta erdietatik, hogeita sei minutu direla **EITB ikusten ematen direnak** Ipar Euskal Herrian. Irratiari dagokionez, entzuleek **bataz besteko** entzuten dituzten hogeitahamabost minutuetatik, hogeitahiru Euskadi Irratia entzuten ematen direla.

Azken inkesta honetan, aipagarria beste datu bat: bataz beste hiru ordu t'erdiz ikusten dute telebista Ipar Euskal Herriko ikus-entzuleek, eta horietatik hogeita sei minutuz, EITB.

Irratiari dagokionez, berriz, entzuten dituzten hogeitahamabost minutuetatik, hogeitahiru minutuz Euskadi Irratia dute piztuta.

ALBISTEA NON??

Ikerketa batez jardungo gara gaur, gure ogibidearekin lotutako batez, hain justu. Euskararen Erakunde Publikoak kaleratu berri dituen inkesten emaitzek Ipar Euskal Herrian euskal irratiak entzuteko dagoen ohitura islatzen dute.

Euskararen Erakunde Publikoak argitaratu du Ipar Euskal Herrian burutu duen telebista eta irrati ohiturei buruzko inkestaren emaitzak.

ESTILO ZUZENA eta

Gaurkoan Italiatik datorkigu albistea, non 16 urteko gazte bat poliziak tiroz hil duen.

Gaurkoan Italiatik datorkigu albistea. Lazion, 16 urteko gazte bat t roz hil du poliziak...

Barriola, izan zen, baina, Atano hirugarrenetik finaleraino sakatzeko gaitasuna erakutsi zuena.

Barriolak erakutsi zuen, baina, Atano hirugarrenetik finaleraino sakatzeko gaitasuna...

Ez izan beldurra eta erredundantea izan, ez erabili erakusleak beharrezkoak ez badira

(...) Arrakasta ederra, beraz, edalontzi **hauena.**

Eguraldi paregabea izen zen, jende pilo bat hurbildu zen **bertara...**

(...) Arrakasta ederra, beraz, edalontzi **berrerabilgarrien inizatibarena.**

Eguraldi paregabea izen zen atzo, eta jende pilo bat hurbildu zen **Berara/Oinezera/jaira...**

INFORMAZIOAREN ANTOLAKETA

Madriren, gazte bat hil da neonazien eta antifaxisten aurkako borroka batean. Hildakoak hamasei urte zituen. **Ustezko erasotzailea atxilotu dute** eta ideologia naziko gaztea da. Bete gazte bat ere larri zauritu zen. Ehunka lagunek egin dute hilketa honen aurkako protesta Madriren eta Bartzelonan.

Madriren, ustez gazte bat hil duen neonazia atxilotu dute. Neonazien eta antifaxisten aurkako borroka baten hil zen hamasei urteko gazte bat eta beste bat larri zauritua izan zen...

INFORMAZIOAREN ANTOLAKETA

(...) Nazioarteko polemika hau baretzen saiatu beharrean, erregeari epel jokatu izana leporatu dio Venezuelako presidentek, Aznar presidente ohiak babestutako Estatu Kolpea gertatutakoan.

(...) Nazioarteko polemika hau baretzen saiatu beharrean, Aznar presidente ohiak babestutako Estatu Kolpea gertatu zenean erregeari epel jokatu zuela leporatu dio Venezuelako presidentek.

INFORMAZIOAREN ANTOLAKETA

Euskararen Erakunde Publikoak argitaratu berri duen txostenaren arabera, Ipar Euskal Herrian herritarren %11k erregulariki sagitzen dute ETBko euskal katea eta %30ek noizean behin.

Ipar Euskal Herrian, herritarren ehuneko 11k erregulariki sagitzen dute Euskal Telebistako euskarazko katea, eta ehuneko 30ek noizean behin, Euskararen Erakunde Publikoak argitaratu berri duen txostenaren arabera.

INFORMAZIOAREN ANTOLAKETA

Athletic-en Aitor Ociok 90garren minutuan Espanyolen alde egin zuen gola eta Osasunak ere berdin, Martins-ek etxeko taldearen aldeko gola lortu zuen 70garren minutuan.

Athletic-en, Aitor Ociok Espanyolen alde egin zuen gola 90garren minutuan. Eta Osasunan antzera, Martins-ek etxeko taldearen aldeko gola lortu zuen 70garren minutuan.

INFORMAZIOA ANTOLATU: galdegaia nabarmendu

Bi gazte auto istripu batean hil egin d ira Nafarroako Fustiñana herrian...

Bi gazte hil dira auto istripu batean Nafarroako Fustiñana herrian...

KALKO OKERRAK

Beste hizkuntzetatik maileguak hartzen ditugu, baina batzuetan okerrak...

...LARIK??

France Bleu da Ipar Euskal Herrrian gehien entzuten den irratia. Eta honen atzetik datoz euskal irratiak, entzulegoaren ehuneko hamaikak erregularitasunez entzuten **dituelarik**. Dena dela, honi Euskadi Irratiak duen arrakasta gehitu behar zaio.

France Bleu da gehien entzuten den irratia Ipar Euskal Herrrian. Eta horren atzetik datoz euskal irratiak, entzulegoaren ehuneko hamaikak erregularitasunez entzuten **BAITITU...**

...BITARTEAN

Gorritxoek Huelvan **galdu zuten bitartean**,
Caparrosenek era mingarrian esan zioten
agur puntuei azken minutuan.

Gorritxoek Huelvan **galdu zuten, eta**
Caparrosenek era mingarrian agur esan
zieten puntuei azken minutuan.

BART HIL DA/ZEN?

- bart hil zen
- Bart hil da...

KLITXEAK ETA ESALDI EGINAK BAZTERTU

- **EDITOREA:** **Albistegiari amaiera emoten joateko** hemen daukaguz Kulturaren inguruko albisteak. Kulturaren atal hau Euskeraren Erakunde Publikoak egindako inkesta batzuen argitarapenarekin eutsiko deusagu.
- **Utzi behar dugu oraingo albisteen errepassoa**, goizeko 8etan bueltatuko gara. Geroarte eta ondo izan

KLITXEAH BAZTERTU

- Orain, **kirolarekin hasiko gara**, asteburu honetan gertatutakoari **erreparasatuz (5'')**
- **Honekin bukatzen dugu gaurko albistegia**, berriro egongo gara zuekin gaueko **bederatzietan (10'')**
- **Hau izan da guztia oraingoan**, informazio gehiago orduro Euskadi Irratiko informazio zerbitzuetan edo eitb.com-en. Besterik gabe jaso ezazue agur bero bat.

KLITXEAH BAZTERTU

- **Hauxe da dena momentuz.** Informazio gehiago jaso ahal izango duzue hurrengo albistegian, ordubatean, eta edozein momentutan gure webgunean, www.herri-irratia.com-en. **Guk gaurkoz amaitu dugu, bihar hementxe egongo gara ordu berean, betiko legez. Ordurarte, ondo ibili. Agur.**
- Oraingoan, besterik ez

KLITXEAZ BAZTERTU

- Datorren hamar minutuetan gaurko albisteen **errepassoa** egingo dugu...
- **Eta gaurkoz gehiagorik ez**, gaurkoan eskerrak bereziki Ipar Euskal Herritik entzuten gaituzuen horiei. Egun ona izan eta ea bihar ez duzuen astelehenik!
- Hau da ostegun goizak itzi diguna, oraingoan behintzat. Gaueko albistegian entzun al izango duzue arratsaldeak zer eskaini digan gaurko egunean. Ordurarte ongi izan. Agur.

NAHASIA

- ESATARIA: Titularren laburpenarekin bat eginik (??), goazen albisteok sakonago ezagutzera gure lankidea den Haizea Errauzkinekin.

NAHASIA

- Saskibaloiko jokalariek bezain zango luzeak ez izanagatik haiek bezain pausu luzeak emateko gauza den korrikalaririk bada Behobia Donostia lasterketan.

GAURKO GAURKOTASUNEZ

- Astelehena dugu gaur eta **gaurkotasunezko azken** albisteekin hasiko dugu saioa asteburuaren ajea ahaztuz.

ENTZULEARI ADARRA JOTZEN?

- Hauek izan dira gaurko albiste nabarmenenak eta **zuen burua janzteko** baliagarriak izan direla espero dugu...

Klitxeak esaldi eginak

(...) emango dio hasiera emanaldiari

(...) agendari egingo diogu errepassoa

(...) erakusketen berri emango dugu

(...) gure agenda kulturalari amaiera emateko...

Ere//Ere bai//Baita//Baita ere

Baita ere Arrasaten (...) taldeak eskulan-tailerrak antolatu ditu (...) ikastaro ezberdinen berri emango dugu **ere bai** (...) (...) **eta baita** momentu honetan ikusgai dauden erakusketei buruz...

Aldiz, berriz, ordea, beti komen artean

Aldiz, Bergaran...

Aldiz, haurrentzako entretenimendu
bila...

Bergaran, aldiz,...

Haurrentzako entretenimendu bila,
aldiz,...

- Ø -ra arte bitartean

Adierak (ELHUYAR hiztegia)

- ♦ postp. *noiz* erako adberbioen ondoan; aditzaren ondotik, berau era burutuan edo laguntzaileak *-(e)n* atzizkia hartzen duela; izen-sintagma mugatuaren ondoan, *Ø* edo *-ra atzizkiaz*; izen-sintagma mugagabearen ondoan

hasta

- *Asteburua arte*: hasta el fin de semana.
- *Ikusi arte*: hasta la vista.
- *Dena txikitu arte*: hasta destruirlo todo.
- *1936tik 39ra arteko gerran*: en la guerra de 1936 a 1939.

Siglak

LGBT Hegoak

Lesbo, Gay, Bisexual eta Transexual
Hegoak...

Ekintzaren subjektua aditzara hurbildu (ez sartu datu gehiegi biren artean)

Jose Juan Gonzalez
Txabarri Gipuzkoako
diputatu nagusia hitz
egiten hasi zenean,
zenbait solidariok gose
greban dagoen Iñaki de
Juanari eta Euskal Preso
Politikoei elkartasuna
erakusteko pankarta
zabaldu zuten, txalo
artean.

Jose Juan Gonzalez
Txabarri Gipuzkoako
diputatu nagusia hitz
egiten hasi zenean,
zenbait solidariok
pankarta bat **zabaldu**
zuten, txalo artean, gose
greban dagoen Iñaki de
Juanari eta Euskal Preso
Politikoei elkartasuna
erakusteko.

Ekintzaren subjektua aditzara hurbildu
(ez sartu datu gehiegi biren artean)

Jendea poliki-poliki
goizeko 9:30etik
aurrera festa
honetara hurbilduz
joan zen

Poliki-poliki goizeko
9:30etik aurrera festa
honetara hurbilduz
joan zen **jendea**.

SIGLAK eta AKRONIMOAK soilik erabiltzen dira
“hitz” moduan erabiltzen ditugunean

(...) eta EAJ, Batasuna,
EA, **EB** eta Aralarreko
ordezkari asko.

(...) eta EAJ, Batasuna,
EA, **Ezker Batua** eta
Aralarreko ordezkari
asko.

Kontuz **-z** (instrumentala) eta **-larik** (denborala) gerundio moduan erabiltzeko orduan

(...) Eguna goizeko
9:30etan hasi zen, 7
kilometroko ibilbidea
irekiz.

(...) Zorionez, atzo irripar
egin zuen zeruak
Oiartzunen,
Kilometroetara hurbildu
zen jende uholdeari egun
atsegin bat **eskainiz**.

(...) Eguna goizeko
9:30etan hasi zen, 7
kilometroko ibilbidearen
irekieraz.

(...) Zorionez, atzo irripar
egin zuen zeruak
Oiartzunen, **eta** egun
atsegina **eskaini zion**
Kilometroetara hurbildu
zen jende uholdeari.

Kontuz **-z** (instrumentala) eta **-larik** (denborala)
gerundio moduan erabiltzeko orduan

(...) Aurtengoan,
gainera, eguraldia
lagun izan da,
aurreikusita zeuden
ekitaldi guztiak arazo
gabe garatzeko
aukera **emanez**.

(...) Aurtengoan,
gainera, eguraldia
lagun izan da, **eta**
aurreikusita zeuden
ekitaldi guztiak arazo
gabe garatzeko
aukera (**eman zuen**)
egon zen

Kontuz **-z** (instrumentala) eta **-larik** (denborala)
gerundio moduan erabiltzeko orduan

(...) Prestaturiko ekintzak goizeko bederatzi t'erdietan hasi ziren kilometroetako ibilbideari **paso emanez**.

Giro paregabea sortu zan antolatzaileen aurreikuspen guztiak hautsiz.

(...) Prestaturiko ekintzak goizeko bederatzi t'erdietan hasi ziren. **Eta horiekin batera**, kilometroetako ibilbidea **irekin zen**.

Giro paregabea sortu zan **eta** antolatzaileen aurreikuspen guztiak **hautsi ziren**.

Kontuz **-z** (instrumentala) eta **-larik** (denborala)
gerundio moduan erabiltzeko orduan

(...) Prestaturiko
ekintzak goizeko
bederatzi t'erdietan
hasi ziren
Kilometroetako
ibilbideari **paso**
emanez.

(...) Prestaturiko
ekintzak goizeko
bederatzi t'erdietan
hasi ziren. **Eta**
horiekin batera,
Kilometroetako
ibilbidea **irekin zen.**

Tartekirik ez (nola irakurri?)

(...) Miren Azkarate
(Kulturako
Ahulkularia), Joanjo
Aguirrezabalaga
(Hezkuntza
Berriztapenerako
Zuzendaritzaren
arduraduna)...

(...) Miren Azkarate
Kultura-Sailburua,
Joanjo
Aguirrezabalaga
Hezkuntza
Berriztapenerako
Zuzendaritzaren
arduraduna...

Estilo zuzena

(...) Aurten Oiartzungo ikastola **izan da** jaiaren antolakuntzaz **arduratu dena** (...)

Haurtzaro ikastola **izan da** aurtengo festa **antolatu duena** “ingo ñeu, ingo yeu” lemapean...

(...) Aurten Oiartzun ikastola **arduratu da** jaiaren antolakuntzaz.

(...) Aurten, Oiartzungo ikastolak **antolatu du** jaia.

Haurtzaro ikastolak **antolatu du** aurtengo festa, “ingo ñeu, ingo yeu” lemapean.

Estilo zuzena

Haurtzaro ikastola **izan da** zazpi gune desberdinak osatu duten zazpi kilometrotako ibilaldiaren **antolatzailea** (...)

Haurtzaro ikastolak antolatu ditu zazpi gune desberdinak osatu duten zazpi kilometrotako ibilaldia.

Haurtzaro ikastolak antolatu du Kilometrotako ibilbidea, zazpi gune desberdinak osatuta.

Erredundantzia zilegi. Eta askotan, beharrezkoa

(...) Beraz, badakizue.
Arteaz gozatu nahi
baduzue, **hemen**
daukazue aukera.

(...) Beraz, badakizue.
Arteaz gozatu nahi
baduzue, **Bilbon**
duzue aukera, **BBV-**
ren arte-aretoan, San
Nikolas plazan.

Zertaz ari garen argitu

ESAT.1: Jakin dut, Euskal Herriko Unibertsitateak **bere urteroko erakusketa horietako bat** antolatu duela berriz ere. Badakizu zerbait horretaz?

ESAT.2: Jakingo ez dut ba! Ni ere han izan naiz, **hemeretzigarren aldia da Arte Ederretako lizentziatu berriek ikusentzunezkoen erakusketa hau** egiten dutena.

ESAT.1: Jakin dut Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederretako ikasleek urteroko erakusketa horietako bat antolatu dutela berriz ere. Badakizu zerbait horretaz?

ESAT.2: Jakingo ez dut ba! Ni han izan naiz. Aurten hemeretzigarren aldia da Arte Ederretako lizentziatu berriek ikus-entzunezkoen erakusketa eskaintzen dutena.??

Estilo zuzena

ESAT.2: EHUko Arte Ederretako fakultateko lizentziadun berriek euren **esperientzia artistikoaren berri emango dute** hilaren 14a bitarte irekita egongo den erakusketan.

ESAT.2: Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederretako fakultateko lizentziatu berriek euren **artelanak erakusten dizkigute** larunbatera bitarte, BBVaren aretoan, San Nikolas plazan.

Deikiaren aurretik, beti koma

(...) izan dute
erakusketa honetan,
ezta Mikel?

Eskerrik asko Mikel,
eta(...)

Eskerrik asko Leire...

(...) izan dute
erakusketa honetan.
Ezta, Mikel?

Eskerrik asko, Mikel,
eta(...)

Eskerrik asko, Leire...

Subjektuaren eta aditzaren arteko KOMARIK EZ

Jadanik, Nafarroa
Oinez-era hurbildu
dan jendetza, etxera
itzultzzen ari da.

Festa, goizeko
bederatzi t'erdietan
hasi da...

Jadanik, Nafarroa
Oinez-era hurbildu
dan jendetza etxera
itzultzzen ari da.

Festa goizeko bederatzi
t'erdietan hasi da...

Izenen eta kargoen tratamendua

- Azken batean, **Sanzen** Gobernuak, bigarren hezkuntzako lehen eta bigarren mailak...
 - (...) eta **Miguel Sanzek**...
- Azken batean, **Miguel Sanzen** Gobernuak bigarren hezkuntzako lehen eta bigarren mailak...
 - (...) eta Miguel Sanz Nafarroako presidentek// (...) eta Miguel Sanz presidente nafarrak...

Klitxeak, esaldi eginak eta perifrasiak baztertu

Hau izan da guztia
gaurkoz...

(...) eta Nafarroa Oinez
ospakizunari amaiera
ematen ari gara...

SIGLAK SOILIK IZEN MODUAN ERABILTZEN DIRENEAN

Nafarroa, **EAE** eta
Iparraldeko
administrazioaren
arteko akordioak

Nafarroa, **Euskal**
Autonomi Erkidegoa
eta **Ipar Euskal**
Herriko
administrazioaren
arteko akordioak

IZENORDAINAK: GUTXI ETA BESTERIK EZ DAGOENEAN SOILIK

Alderdi politikoetako zenbait ordezkari Berara hurbildu ziren, Nafarroako ikastolen alde daudela **adieraziz**.

Horretaz aparte tonbola bat antolatu zuten, txirrindulak, CD-ak, mini motorrak, kamisetak **eta abar zozketatuz**.

Alderdi politikoetako zenbait ordezkari Berara hurbildu ziren, Nafarroako ikastolen alde daudela **adierazTEKO/adierazTEN** (ZERTAN?)

Horretaz aparte, tonbola bat antolatu zuten, **eta** txirrindulak, CDak, mini motorrak eta beste sari asko banatu zituzten zozketan.

ESALDI LABURRAK ETA MENEKORIK EZ

(...) ibilbidearen hasieran umeentzako eskumuturrekoak eskaini zituzten, **non**, haien izena eta gurasoen telefono zenbakia agertzen **zen**.

(...) ibilbidearen hasieran umeentzako eskumuturrekoak eskaini zituzten. **Horietan** umearen izena eta gurasoen telefono zenbakia agertzen zen.

Irakurtzen den moduan

XIV. Mendeko...

Hamalagarren Mendeko...

Aposizioak irratian

Martzinkusek (esatariak) esan digu...

Martzinkus esatariak esan digu...

Martzinkusek, Matrallako esatariak, esan digu...

Irratsaioko esatariak, Martxinkusek, esan digu...

AHOLKUA:

Begiratu araua: Komunztadura Aposizioetan